

Neandertalen arrasto genetikoak aurkitu dituzte afrikarretan

Orain arte kontrakoa uste bazen ere, afrikarrek ere badituzte neandertalen geneen arrastoak, nahiz eta neandertalak ez ziren inoiz lurralde afrikarretan bizi izan, [Cell/aldizkarian argitaratutako ikerketa berri baten arabera](#). Orain arteko estimazioek zioten Europa, Asia eta Amerikako egungo gizakiek neandertalean geneen % 2 dituztela, baina afrikarrek ez dutela haien inolako arrastorik. Princetongo Unibertsitateko ikertzaileek, ordea, metodo estatistikoki berri bat erabilia argitu dute % 0,3ko arrasto neandertalak dituztela, eta, ondorioz, guztiok ditugula neandertalen geneak.



ARG.: Matilda Luk/Princeton University Office of Communications


Zientzialariek uste dute hibridazio afrikar hori guxtienez duela 100.000 urte inguru gertatu zela, alegia, gure espeziea Europa eta Asiatara zabaltzeko eta lurralde hura kolonizatzeko irteera handiaren aurretik (*Out of Africa*). Beraz, neandertalen herentzia genetikoaren ikuspegiaz gain, gure espeziearen mugimenduen ikuspegia ere alda dezake ikerketa berriak, eta giza migrazioen historia erabat adarkatua eta konplexua dela berresten du. ●

Inoizko materialik zaharrena aurkitu dute meteorito batean

Lurrean inoiz topatu den materialik zaharrena aurkitu dute, duela 50 urte Australian eroritako meteorito batean. Silizio karburozko 40 pikor dira, mikra gutxiko tamaina dute, eta eguzki-sistema sortu baino lehenagokoak dira.

Silizio karburozko pikor horiek izarren hautsa dira, izar bat suntsitu ondoren meteorito batean harrapaturik gelditu zirenak, milaka milioika urtez, 1969an Australian erori arte. Murchison izena eman zitzaion meteorito hartatik, 100 kilo material jaso ziren, eta material horretan aurkitu dituzte orain 40 pikor horiek.

Izpi kosmikoen nola eragin dieten aztertuta, kalkulatu dute gehienek 3.600 eta 3.900 milioi urte artean dituztela, eta gutxi batzuek 5.500 milioi urte arteraino (Eguzkiak 4.600 milioi urte ditu, eta Lurrak 4.500 milioi). Horrez gain, ikertzaileek iradoki dute material hori izarren sorkuntza bereziki oparoa izan zen garai batean sortu zela seguruenik, duela 7.000 milioi urte inguru. ●



Silizio karburozko pikor bat, 8 mikrometro inguru dituena. ARG.: Janaína N. Ávila.